

# Aerosorgailuei buruzko eztabaida

Berotze globalari aurre egiteko estrategia politikoe-tan, trantsizio energetikoak garrantzi nabarmena du. Horren barruan, energia berriztagarria ekoizteko hainbat egitasmo iragarri dituzte, eta, tartean, parke eolikoak eraikiko direla aurreikusi dute. Aurreikuspen horiek, ordea, talka egin dute erai-ki nahi diren inguruetako herritar askoren nahien kontra, eta aerosorgailuak jartzearen kontrako mugimenduak indarra hartu du.

Eztabaidan, energiari eta ingurumenari buruzko alderdi teknikoez gain, alderdi soziala eta antropologikoa ere kontuan hartu behar direla iritzita, haren gaineko analisi bana eskatu diegu, alde batetik, Iñaki Barcena Hinojali (Gizarte eta Politika Zientzietan doktorea eta Ekopol ikerketa-taldeko kidea), eta, bestetik, Maider Zilbeti Perez (Filosofian doktorea) eta Rodolfo Salazar Gili (Filosofia, Zientzia eta Baloietan doktoregaia).



## Iñaki Barcena Hinojali

Zuzenbidean lizentziatua, Gizarte eta Politika Zientzietan doktorea eta Ekopol ikerketa-taldeko kidea



Euskal haize-erroten galdetegia



Aumategi 2022an. ARG.: Jose Angel Urquia Goitia/CC40.

**Maider Zilbeti Perez**  
Filosofian doktorea



**Rodolfo Salazar Gil**

Filosofia, Zientzia eta Balioetan doktoregaia



**Parke eolikoak,  
bidezko trantsizioa  
eta klima-aldaketa**

# Euskal haize-erroten galdetegia

Kixote berriak al dira euskal ekologistak? Azken 50 urteetan euren kartel eta argitalpenetan aerosorgailuen sinboloa jite alternatibo eta positibo moduan agertu da ia beti, eta orain... "mendietan ez" banderak eta pankartak Euskal Herriko hainbat bailaratan topa ditzakegu, sorgailu eoliko erraldoi berriak deitoratuz. Zer ari da gertatzen? Nondik eta zergatik dator aldaketa hori?

Euskal Herriko mapari begirada bat eginez, be-rehala konturatzen gara instalazio eoliko industrial hauek gure geografian zehar oso modu asimetrikoan daudela barreiatuak. Itsasoan zero eta lparaldean bat ere ez. Bizkaian bi (Abran eta Oizen), Araban bat (Badaian) eta beste bat Gipuzkoako eta Arabako mugan (Elgea-Urkila). Nafarroa garaiko lurraldean, aldiz, 32 parke eoliko zenbatzen ditugu. Zergatik hain diferentzia handia? Nafarroa zaba-

lagoa delako? Bai, baina orduan 7-8 egongo ziren Nafarroan, proportzioan. Edo EAEn 25 instalazio. Non dago desoreka horren kokka?

Badago beste datu kurioso bat. Instalazio eoliko industrial hauen ekimenak bai Nafarroan eta bai EAEn instituzio publikoetatik jaio ziren, baina gaur egun bi espazio autonomikoetan esku pribatuetan daude. Denak. Pribatizazio hori zergatik?

Dena den, orain, istiluaren mamia ez dago ditugun aerosorgailuen inguruan baizik eta etorriko direnen auzian. Zergatik? Hori ez al da ekologistek beti errebindikatu duten alternatiba? Petrolio eta erre-gai fosiletatik energia berriztagarrietara trantsizio energetikoa ez dute egin nahi?

Nire uste apalean, trantsizio energetikoa, garapen jasangarriarekin edo demokrazia parte-hartzailearekin gertatu den moduan, hitz pol(is) emikoa bihurtu da, signifikante huts bat, non eragile bakoitzak nahi duena sartzen omen duen. Eta gauden krisi energetikoaren aurrean, eta hori inor gutxik ukatzen du, oso iritzi desberdinak eta kontrajarriak aurkitzen ditugu Euskal Herriko eragile sozio-politikoaren artean. Eta nago eztabaida demokratikorako ez dagoela espaziorik, ezta gogo instituzionalik.





### Iñaki Barcena Hinojal

EKOPOL ikertaldeko kidea

Zergatik ez dago planifikaziorik? Zergatik sortu dira hainbeste proiektu berri pandemiaren ondoren, eta ez da eztabaidatzen zenbat energia elektriko behar ote dugun? Jabegoa publikoa, komunitarioa edo pribatua izango da? Zenbat aerosorgailu behar ditugu, eta non kokatu daitezke? Zergatik mendietan bai? EAEko "PTS" direlakoak markatzen duen arabera edo ez? Galdera hauek, antza, merkatu librearen logikaren aurkako bekatu larria dira eta ez dira politikoki zuzenak.

Euskal herritarrok beste herrialdeekiko zor ekologiko erraldoia dugu. Batez ere kontsumitzen ditugun errekurtsu energetiko eta materialengatik eta sortzen ditugun kutsadurengatik ere, CO<sub>2</sub>-a adibidez. Horregatik, zor hori kitatzeko eguzki-energiaren aldeko pausoak ezinbestekoak ditugu.

Joan den urtean, [gure ikerketa-taldeak](#) hamabost eragile soziopolitikorekin (instituzionalak, aktibistak, enpresak, akademikoak...) energia berriztagarrien auziaz hiru mahai-inguru antolatu genituen. Adostasunak? Dependentsia energetikoa amaitzeko urgentsia, bide demokratikoetatik eta praktika

sozialak aldatuz. Aldiz, hamaika desadostasun topatu genituen, aerosorgailuen gatazkari zuzenean aplikatu dakizkiokeenak. Sinplifikatzearen, argudioak hiru ardatzetan lerratu daitezke. Batetik, hazkunde iraunkorra eta tekno-zientziaren beharra, non energia merkantzia bat bezala ulertzen den. Horren ifrentzuan, desazkundera eta ekofeminismoaren diskurtsoa kokatu ditzakegu, non logika berriak bilatu behar diren eredu energetikoa errotik aldatzeko. Eta erdibidean diskurtso pragmatikoa, transizio energetikoaren bideragarritasunean oinarritzen dena, egungo gizarte-eredua abiapuntutzat hartzen duena, helmuga eta bidea desberdinduz. Zein da gaur egun indartsuena? Lehenengoa duda izpirik gabe. Beste biak elkartu daitezke? Agian.

Brasilgo aktibistengandik aspaldian ikasi genuen energia *zertarako?* eta *norentzat?* itaun nagusiak erantzuteko omen direla. Ados gaude? ●

## Maider Zilbeti Perez

Filosofian doktorea

## Rodolfo Salazar Gil

Filosofia, Zientzia eta Balioetan doktoregaia



—Zer erraldoi? —esan zuen Sancho Panzak.

—Han ikusten dituzunak —erantzun zion ugazabak—, beso luzeak, ia bi legoakoak izaten dituztenak.

Joan den mendez geroztik, nazioarteko komunitateak badaki klima-aldaketaz, planetako bizitzan dituen ondorio larriez eta duen izaera antropogenikoz. Horri aurre egiteko dauden neurrien artean, bat energia berriztagarria sustatzea da, ekonomia-aren balizko deskarbonizazioa eta energia sortzeko erregai fosilen erabilera etetea ahalbidetzen duena.

Azken urteetan, energia eolikoaren ahalmen instalatua modu esponenzialean hazi da. Munduan, lehorrean, 2010ean 178 GW izatetik 2020an 699 GW izatera igaro zen. Aurrerapen teknologikoa funtsezkoa izan da: 1985ean, aerosorgailu

batek 0,05 MW-eko potentzia izendatua zuen, eta 15 m-ko diametroko errotorea; gaur egun, lurrean, 7 MW-eko edukiera du, 170 m-ko diametroko errotorearekin. Horrek kostuak murriztea eta prezioak modu erakargarrian jaitea dakar. Hala ere, ikuspegi sozialetik, oposizio-maila desberdinak aurkitu ditu.

Inpaktuen ebaluazioaren munduan premisa bat dago: azpiegitura-proiektu orok gizarte- eta ingurumen-inkaktu negatiboak sortzen ditu. Hori da energia eolikoko parkeen kasua. Hala ere, proiektu handiak garatzeko erabiltzen den aldarrikapenetako bat da haien gizarte- eta ingurumen-inkaktuak oso baxuak edo ia nuluak direla iturri fosilekin alderatuta.

Izan ere, *zer da aerosorgailu bat?* galderaren aurrean, hainbat erantzun daude: jasangarritasunaren eta trantsizio energetikoaren sinboloa, ekonomia berdearen pieza nagusia, industria produktua, negozio-aukera, kutsadura-iturria, edo kolonialismoaren forma berria.

Parke eolikoaren aurkako oposizioa parkeok kokatuta dauden munduko eskualde guztietan dago. Hala



# Parke eolikoak, bidezko trantsizioa eta klima-aldaketa

ere, gizarte- eta ingurumen-inpaktuak ia deusezak direla dioten interesdunek aurkarien deskalifikazioa bilatzen dute, haiek salatzen dituzten inpaktuak minimizatuz: zarata eta horrek osasunean duen eragina; paisaiaren, ekosistemen eta natura- eta kultura-ondarearen gaineko eragina; komunitateen barnealdearen desberdintasuna; eta, oro har, lurraldearen okupazioa.

Aurka daudenak gutxiestea ez da bidezko trantsizioa lortzeko biderik egokiena. Izan ere, tentsioak sortzen ditu, gizarte-ehuna minduz. Gainera, inpaktu sozialek arreta gutxi hartzen dute proiektuak sustatzen dituzten politika publikoetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, argitaratu berria da gidalero bezala energia berriztagarrien hedapena planteatzen duen Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea. Arauak proposamen interesgarriak biltzen baditu ere, egia da, halaber, proiektu eoliko berrien iragarpenaren aurrean oposizioa handitu egin dela.

Proiektu eoliko handiei egiten zaien kritika nagusia da betiko logika ekonomiko berarekin eta beraren-

tzat planifikatzen eta garatzen direla. Krisi ekologikora eraman gintuena bera dela, paradoxikoki, proiektuei zentzua ematen diena.

Ekonomia deskarbonizatzeko eta gure isurketak azkar murrizteko premiaren aurrean, ekonomiari kalte larria egin gabe, ezinbestekoa da energia berriztagarrien proiektuak garatzea. Baina horrek ez du esan nahi proiektuak ezin direnik logika desberdinarekin egin: gizartearen eta komunitatearen partaidetzarako tresnak plangintzaren hasierahasieratik planteatuz; adibidez, kontsulta-prozesuak. Horrekin batera, erkidegoen eta enpresen arteko ekintzarako elkartze-ereduak esploratuz, etekinen bidezko banaketa-ereduak ezarriz, eta ekuazioan esplizituki adieraziz eragin negatiboak kanporatzen direla. Izan ere, horrelako proiektuen energia-eskaera ez dago zuzenki erlazionatua eragingo dion komunitatearen behar energetikoa-rekin. ●



[Jatorrizko testua luzeagoa da. Irakurri osorik webgunean](#)